


## **BALIOZKO PROPOSAMENA:**


Gure produktuaren ideia esperientzia baten ondorioz bururatu zitzagun. Gure taldeko pertsona bat bere lagunak bizi diren lekutik urrun bizi da, eta gauetan etxera bakarrik joan behar duenean, beldurrez joaten da. Guk, adin txikiko emakumeak izanda, ondo ulertzen dugu egoera hori. Emakume guztiok bizi dugu noiz baiten antzeko egoera bat, kaletik joatean, gauean batez ere, segurtasun falta sentitu dugu.

Egunero emakumeenganako indarkeri kasuak egoten dira, fisikoak naiz psikologikoak.

Hona hemen 2016ko zenbait grafiko:



Gráfica 1. Edad de la mujer y riesgo de violación y otros asaltos sexuales por hombres (N=252.674) (Ajustado por edad)



Segurtasun falta honen kontra zerbait egiteko gogo sutuak piztu ziren gure barnean, emakume guztiak kaletik lasai joan dezaten. Horren ondorioz, eskumuturrekoaren ideia bururatu zitzagun. Gure produktua GPS bat integratuta izango du, guk sortutako segurtasun enpresa batekin konektatuta. Horrela, neska bat mehatxatuta edo arriskuan sentitzen bada, produktuaren botoia sakatu eta azkar jasoko du laguntza.

Idea garatzen joan ahala, konturatu ginen eskumuturrekoa beste arazo batzuk konpontzeko ere baliagarria zela. Konturatu ginen edonork larrialdi bat izan dezatela eta laguntza azkar eskatzeko moduak ez daudela, mugikorrek egon arren, askotan horrelako egoeretan, jendea ez dauka denbora larrialdietako telefonora idazteko edo deitzeko. Gure eskumuturrekoarekin, botoi bat sakatzeko, laguntza modu azkarrean bidaltzeko ahalmena izango dugu. Adibidez, norbaitek auto istripu bat badauka eta ez badauki errepidearen zein zatitan dagoen, galduta badago, botoia sakatzeko persona hori lokalizatzeko gai izango gara segundu batzuetan.

Hauek dira besteengandik bereizten gaituzten produktuaren zenbait ezaugarri:

- BERRITASUNA:

- Laguntza egoera larri batean, baina ez bakarrik etxean zaudenean, baizik eta kaletik zoazenean ere. Gaur egun, agurentzako dispositibo batzuk daude, baina hauek etxetik kanpo ez daukate inolako funtzionamendurik, berez, guk betidaniko produktu bati, erabilera berri bat emango diogu, etxetik kanpo funtziona dezan.

- Prestazioan arazo horri aurre egiteaz aparte, produktu horrek hainbat apaingarri bezala erabili dezakezu eta arazo larrian egonez gero inork ez du jakingo produktuaren benetako erabilera. Betidanik egondako produktu bati (apaingarriak), erabilera berri bat eman diogu (egoera larri batetik salbatzeko ahalmena).

- PRESTAZIOAK:

-Lasaiago ateratzeko kalera, erasoren bat (lapurketa, bortzaketa...) jasotzeko beldurrik gabe. Ez bakarrik erasoekin, baizik eta bat-bateko gaixotasun arazoekin ere (antsietate krisiren bat, epilepsia atakea...) edo basora joatekotan, eta galtzen bazara, botoia sakatuz, zure lokalizazioa aurkitzeko gai izateko. Izan ere, produktua GPS bat integratuta izango du, eta botoia sakatzean, pertsona segundo batzuetan lokalizatu eta laguntza ahalik eta azkarren bidaliko dugu.

-Segurtasun eza ekiditeko emakumeen kasuan.

-Egoera kritiko batean bazaude, beste pertsonak erraztasunez aurkitzeko, GPS integratuaren bidez.

-Zure inguruko pertsonak lasaiago egoteko kalera joaten zarenean, badakitelako arazoren bat egotekotan, azkar lokalizatzeko gai izango direla.

-Erlojua urarekiko erresistentea izango da, horrela, hondartzen zaudenean adibidez, itsasontzi batekin egotekotan, itsas zabalean igeri egiten bazaude, eta korrontean itsasontzitik aldentzen bazaitu, urarekiko erresistentea denez, ez da apurtuko eta deia egin dezakezu, beste itsasontzi batek, zure bila joan dezan.

- DISEINUA:

-Erosteko momentuan erloju bat edo eskumuturrekoa bat izatea erabaki ahal da

-Produktuaren diseinua gure taldearen kide batek egingo du, marrazketan oso ona dena.

- PERTSONALIZAZIOA:

-Pertsonalizatu nahi duzun kolorearekin, zure gustukoa.

- PREZIOA:

-Prezio eskuragarria pertsona guztien egoera ekonomikora egokituta. Izan ere,

bezeroek produktua modu errepikarian ordaintzeko posibilitatea izango dute, haien beharren eta egoera ekonomikoaren arabera.

- ERABILERRAZTASUNA

-Oso erraza da erabiltzea, bakarrik egin behar dena botoi bat sakatzea da, gainerako lana eskumuturrekoaren teknologiak eta gure enpresa egingo du.